

Kadet eta Bettiriño, XVIII. mendeko tresor berreskuratua

2009ko ekainean XVIII. mendeko eskuizkribu bat aurkeztu genuen Hazparnen, Euskaltzaindiaren 90. urteurreneko ospakizun ekitaldian; idatzi haren gaineko azterketa eta edizio kritikoa argitaratzen da orain. Lehen mailako lekukotasun batez ari gara, euskararen corpusaren emendatzera baitator, eta zenbait ezaugarri interesantez hornitua:

1. Anonimoa da, hasiera batean.
2. Hazparne aldeko euskararen testurik zaharrena da.
3. Solasaldi baten forman egin da.
4. XVIII. mendeko genero didaktikoan koka daiteke.
5. Irakurlego femenino bati zuzendua da.
6. Larramendiren lanaren eragipen goiztiarra erakusten du.
7. Guztien gainetik, hizkuntza zinez aberatsa du.

Ez dakigu deus egileaz, nahiz apez bat zela aise suposa dezakegun. Egiletasun hipotesi bat proposatzen dugu: Gratien Diharce d'Alçuyet (†1781), Hazparneko Alzieta etxeko semea. Zernahi gisaz, euskal literaturaren kide berri baten aitzinean kausitzen gara, eta ez nolanahikoa: hasteko, ordezkatzeko duen euskalkiagatik (mendebaldeko baxenafarrera), Iparraldeko bi literatur tradizio nagusietarik kanpo gertatzen baita, lapurteratik bezain zubereratik urrun.

Lehen orrian edukia azaltzen zaigu: *Yesu Christo eguiazco Yainco Guizonaren bizia eta heriua laur evanyelista eguiazcuen eta sainduien arabera*. Datazio lanek XVIII. mende erditsuan kokatzen dute lekukotasun ezohiko hau. Garai hartan testu berriak argitaratu ziren Baionako elizbarrutian: Etxeberri Sarakoaren *Lau-urdiri* (1718), Chourioaren *Imitazionea* (1720) edo Harrieten *Gramatica* (1741) dira gure autoreak ezagut zitzakeenetakoak. Halere, eragin ezin ukatuzkoena Hegoaldetik zetorkion: Larramendiren *Hiztegi Hirukoitza* (1745). Beraz, klarki erakusten da honen itzala uste baino lehenago heldu zela Iparraldeko euskal herrialdeetara; izan ere *Kadet eta Bettiriño* eragipen horren lekukotza goiztiarren artean kokatzen ahal dugu ez jadanik Iparraldean, baina beharbada euskararen geografia osoan.

Formaren aldetik, testua solasaldi baten itxurapean egituratua da, Kadet izeneko apeza eta Bettiriño haurra elekide izanik. Hauek, galto-arrapostu eskema mekaniko batera plegatu gabe, malgutasun eta libertate handirekin mintzatzen dira. Idazkia, beraz, aiseago sar daiteke XVIII. mendean azkar zegoen —baina euskaraz arras guti landua— genero didaktikoan.

Eta testua pedagogikoa izatera, galdera pausatzen zaigu: noren formatzeko? Urte haietan erlijione eta erakaspen egitasmo bat gauzatu zen Baionako diozesan, betiere Daguerre abatearen gidaritzan: egortza edo misioneari, Larresoroko apezgaitegia (1733) eta Hazparneko *Maison de Retraite* izeneko erakundea, neskatilen hezteko (1738). Gure ustez, Erretrera Etxe hartako neskatilak ziratekeen gure testuaren hartzaile naturalak.

Baina *Kadet eta Bettiriño*ren ezaugarri interesgarriena haren hizkuntzaren kalitatea da. Idatzizko tradizio arras urria duen baxenafarrera batendako, egileak saio bikaina egiten du: hizkuntza idatziaren inguruko arrangura bai, baina ahozko moldeak aherentzi gabe; neologiaratze bai, baina mintzaira desnaturatuen erori gabe. Emaiz euskara zinez aberats, adierazkor eta bizia da. Hortaz, ez gara testuaren behar den zorrozetasun filologikoaz argitaratzera mugatu, haren kokapen historikoa eta, bereziki, hizkuntza alderdien gaineko ikerketa ere eskaini nahi baikenuen.

Beraz, bi mende eta erdiko ahazturan gorderik egon den tresor bat eskura dakarkizuegu, euskararen zeruan orain berpizten den izar honek exijitzen zuen bezala.

Heda bedi haren argi distiranta.

Manuel Padilla Moyano